



ARGI BIDEAN

Asko gara bizitzan, batera edo bestera jokatzeko alegindu gareanak.

Asko lanean mintu gareanak.

Beti brankaz jokatu bearrean aurkitu izan garelako, ekaitzari, denboralari eutsi naian, itxasoan negu garrantzetako ekaitz artean gora ta bera, ezker-eskuma olatu eta bagaen zapladak artzen dabillan txaloparen antzera...

Euskal mundua dogu aurrean: euskal itxasoa. Kantauri itxasoaren antzera sarri arrotu ta gangartzen dan itxasoa. Kalma zuri baiño aize berde edo ipar baltzetan sarriago ezagutzen dogun gure itxasoa.

Itxas onetan era guztietako patroiak ezagutu izan doguz. Oituren jarraitzaileak, tradizio baten menpekoak, eta zela-ala iraultzaile izan diranak.

Or esateko Azkue berbera, or Lekuona. Or baita Federiko Krutwring, alemaniarra odolez, gizon jakintsu eta ikasia. Euskaltzain autatu ebenetik gizon eztabaidatsua. Muga igaro bear izan eban Euskaltzaindiko lenengoko itzaldi bat amaitu orduko.

Jakina, ez euskeraz, ez gerkeraz, txistik egiteko aukerarik ez gendun garizuma illun eta luze aretan gertatu zan ori.

Ba dirudi beste gauza asko eteteko burrukan, euskeran ere iraultza egin nai izan gendula. Eta bide barrietan asi giñan, euskeraren urak bide barrietatik obeto joango ziralakoan.

Analisi zur, argi eta alderdikeri gabeko bat eskatzen dauan bide barritze baten sartu giñan.

Ba dagoz bide ori dala-ta buruari eusten ari diranak, nora ete garoazan sinistu eziñez; urteera bako pendiz arriskutsu baten sartu eta garean larri, euskeraren bidea ortik joan bear eta dan salatzen...

Baiña lenago ere egon ziran lekaroen ots egin ebenak.

Asko dira ori ikusten dabenak. Asko baita, —bakoitzak daki zegaitik— mutu irau eta jarraitzen alegintzen diranak.

Alaz eta tartean agertzen da egia ikusten asia dan norbait. Mutu jarraitzen koldarti izan nai ez dauanen bat. Eta bere aitorten bakoitza, salaketa garrantz izanaz batera, jokabide askorentzako ostikada da.

Guk ez dogu guretik ezer esango.

1.990'ko Irailaren 30'n, "Deia" egunkarian agertu zana, etorran lez gogoratuko dogu. Datorran tokitik etorrita, pentsagarri ta pentsabide garrantza askorentzat.

A. Zubikarai